

## **EH Bilduk Udalaren Gardentasunerako eta Herritarren Parte hartzerako Araudi berriari oniritzia eman dio, eta alde bozkatuko du Osoko Bilkuran**

***Nagore Gomara: "lazko otsailean, begi onez ikusi genuen araudi berri bat egiteko prozesua irekitzea. 2013. urtean, gure EH Bilduko kideek landutako zirriborro araudia abiapuntutzat hartuta, hilabete hauetan asmo handiko araudi integral bat zehazteko lan egin dugu, eta azkenean, testuan jaso da hori; hasieratik gainontzeko alderdiekin eta herritarrekin negoziatzeko eta adosteko beharra eta borondatea adierazi genuen hain garrantzitsua den gai bat, eta modu positiboan baloratzen dugu gai honetan egindako ibilbidea eta azken emaitza".***

Laudio, 2022.01.31. Laudio herri proiektu gisa garatzeko eta herritar aktiboak eta inplikatuak lortzeko, parte hartze dinamiketan benetako apustua egitea ezinbestekoa dela aldarrikatu du beti EH Bilduk, azpimarratuz, historikoki hori izan dela koalizioaren gidalerroa. Herri parte-hartze sendo bat lortzea, herritarren boterea berreskuratzea eta udalaren eta gizarte antolatuen arteko jardun bateratua sustatzea arduradun politikoen agendan kokatzea ezinbestekotzat jo du koalizioak. Bide horri ekiteko asmoz, alderdi subiranistak udalean ordezkaturik dauden talde guztiei eskua luzatu zien araudiaren eguneratze lanen berri izan zuenean.

Prozesu luzea eta mamitsua izan dela adierazi du Nagore Gomarak, aipatuz EH Bilduk ahalegin eta interes handia jarri duela, *"araudiaren zazpi zirriborro partekatu ditugu gobernu taldearekin eta beharrezkoak izan diren bilerak egin dira guztiontzat oinarri bezala baliagarria izan daitekeen testu bat adostu arte"* gehitu du zinegotziak. Bidean zehar, gora-beheraren bat egon bada ere, herritarren eskubideak aintzat hartu dira eta interes politikoetatik haratago, herri antolatu ahaldunduaren oinarria eta ideia gailendu da. *"Jakin badakigu legediak ezartzen dituen mugak direla eta, gure gustuko gauza batzuk ezin direla araudian jaso, parte-hartze organoen lotesletasun legala, adibidez, baina deliberazioaren eta gizarte aktibo baten hausnarketaren aldeko apustua egiten dugu. Iritsiko da ere, gure herrian, laudioarren iritziaren indarra legez onartzeko unea, baina bitartean, urratsak emateko aukerak daudela uste dugu.*

Era berean, EH Bilduk adierazi du gai estrategikoen aurrean hau izan beharko litzatekela lan egiteko modua; hau da, seriotasunez eta sakontasunez gaiak jorratu, behar beste bilera egin, aholku tekniko zein juridikoa eskaini, eta laudioarrei ekarpenak egiteko aukera eta epea eman emaitza adostu bat lortzeko helburuarekin. Izan ere, kezkarria iruditu zaio alderdiari herritarrengandik araudiak jaso dituen ekarpen eta erantzun eskasa, eta hausnarketarako gaia

dela adierazi du. *“Ea araudiak eskaintzen dituen aukeraz baliaturik, poliki-poliki, jendartearen parte-hartzea eta konfiantza berreskuratzeko gai garen gure herrian”.*

Bestetik, koalizioak bi eskaera egin ditu: lehenik, gobernu taldeari eskatu dio araudiaren erabilera anekdotikorik egin ez dezan eta herritarrak ahaldundu ditzan udalaren jardunean parte hartzeko izango dituzten bideak eta foroak zabalduz eta ezagutaraziz; eta bigarrenik, herritarrei gonbitea luzatu die araudia ezagutzeko eta bertan jasotzen diren aukera oso ugariak baliatzeko haien parte-hartzea indartzeko. Zentsu horretan, EH Bilduko zinegotziak herritarrak animatu ditu norberak bere esparrutik, auzoetatik, feminismitik, kulturatik, ekonomiatik, herrigintzatik, euskaltzaletasunetik, kiroletik, eta abar, udalaren kudeaketarekiko elkarlana eta kontrola landu ditzan.

Bukatzeko, EH Bilduk adierazi du araudiaren berri emango duela, eta edozein elkarte nahiz herritarrari araudiak jasotzen dituen atal guztien inguruan informazioa eta laguntza emateko prest dagoela. *“Laudio hobetu eta eraldatzeko tresna oso baliagarria dugu mahai ganean, eta erabilpen egokia egitea ezinbestekoa izango da laudioarrak udalaren jarduketan eta dinamiketan inplikatu nahi baditugu. Gardentasuna, informazioa eta parte-hartzea oso garrantzitsuak dira udalak herritarren konfiantza izateko”* adieraziz bukatu du zinegotziak.

## **EH Bildu da el visto bueno al nuevo Reglamento de Transparencia y Participación Ciudadana y votará a favor en el Pleno**

***Nagore Gomara: “Ya en febrero del año pasado valoramos positivamente la apertura de un proceso de elaboración de una nueva normativa. Tomando como referencia el borrador normativo elaborado en 2013 por compañeras y compañeros de EH Bildu, en estos meses hemos trabajado por definir un reglamento ambicioso e integral, algo que finalmente ha sido recogido en el texto. Desde un principio manifestamos la necesidad y voluntad de negociar y consensuar un tema tan importante con el resto de partidos y la ciudadanía, y valoramos positivamente la trayectoria seguida en su elaboración y su resultado final”.***

Laudio, 31.01.2022. EH Bildu siempre ha reiterado que para construir Laudio como pueblo y lograr una ciudadanía activa e implicada, es necesario apostar por dinámicas de participación, subrayando que históricamente esta ha sido la forma de actuar de la coalición. Lograr una amplia participación popular, recuperar el poder de la ciudadanía y promover una gobernanza colaborativa entre el ayuntamiento y la sociedad organizada, según la coalición, son requisitos indispensables que deberían recoger la agenda de los y las responsables políticas. Con este fin, el partido soberanista tendió la mano al resto de grupos políticos representados en el ayuntamiento cuando tuvo conocimiento de las labores de actualización del reglamento.

Nagore Gomara señala que ha sido un proceso largo e intenso, donde EH Bildu ha puesto todo su esfuerzo e interés, *“hemos compartido siete borradores con el equipo de gobierno y se han mantenido todas las reuniones que han sido necesarias hasta acordar un texto que sirva de base para todos y todas”* ha añadido la concejala. A lo largo del camino, si bien ha habido alguna que otra incidencia, más allá de los intereses políticos, han primado los derechos de la ciudadanía y ha prevalecido la idea y la base de un pueblo organizado empoderado. *“Somos conscientes de que, por las limitaciones que impone la legislación vigente, algunas cosas que nos gustaría, como la vinculación legal de los órganos de participación, no pueden ser recogidas en la normativa, pero apostamos por la deliberación y la reflexión de una sociedad activa. Llegará también a nuestro pueblo el momento de reconocer legalmente la opinión de los y las laudioarras, pero mientras tanto, creemos que hay posibilidades de dar pasos hacia ese camino”.*

Asimismo, EH Bildu señala que, ante cuestiones estratégicas, esta debería ser la forma de trabajar; es decir, tratar con seriedad y profundidad los temas, mantener las reuniones que sean necesarias, ofrecer asesoramiento técnico y jurídico, y dar a los y las laudioarras la oportunidad y el plazo de realizar aportaciones con el fin de conseguir un resultado consensuado. No obstante, al

grupo municipal le preocupa la escasa respuesta y participación que ha habido por parte de la ciudadanía a la hora de realizar aportaciones a la normativa, y señala que es un tema de reflexión. *“Debemos aprovechar la oportunidad que ofrece este reglamento, para poco a poco, recuperar en el pueblo la participación y la confianza de los y las laudioarras”.*

Por otra parte, la coalición realiza dos peticiones: en primer lugar, insta al equipo de gobierno a que no haga un uso anecdótico de la normativa y empodere a la ciudadanía, a través de la difusión de los canales y foros de participación existentes en la misma para poder implicarse, así, en la actividad municipal; y, en segundo lugar, invita a la ciudadanía a conocer la normativa y a aprovechar las múltiples posibilidades que en ella se recogen para reforzar su participación en el ámbito municipal. En este sentido, la concejala de EH Bildu ha animado a los y las laudioarras a que, cada cual, desde su ámbito de actuación, es decir, ya sea desde su barrio, desde el feminismo, desde la cultura, desde el municipalismo, la economía, el euskera, el deporte, etc. participe en la gestión y control municipal.

Finalmente, EH Bildu ha manifestado su intención de difundir el contenido del reglamento, y ha añadido que informará y ayudará a cualquier asociación y ciudadano y ciudadana, que así lo desee, a conocer los apartados recogidos en el mismo. *“Tenemos sobre la mesa una herramienta muy útil para la mejora y transformación de Laudio, y será indispensable hacer un buen uso de ella si queremos implicar a los y las laudioarras en las actuaciones y dinámicas municipales. La transparencia, la información y la participación son muy importantes para que el ayuntamiento cuente con la confianza de su ciudadanía”,* ha concluido la concejala.